

«Niretzat bertsoa zoriontsu izateko bitarteko bat izan da, bai bertsolaritza eta bai elkarte»

Familiako lagun kolonbiar bati esan dio abenduaren 18an ez duela libre izango. «*Tengo que ponerle la boina al campeón o campeona*». Eta bertsolaritzaz ez dakien bati bertsogintza azaltzen hasten denean konturatzten da zer-nolako dimentsioa daukan. «13.000 lagun han, pertsona bat eskuak poltsikoan dituela mikrofono aurrean jarrita, ‘a cappella’, gainera, gaizki kantatzen dugu gehienok. Badaude ondo kantatzen dutenak baina... eta hala ere jendearen isiltasun hori bertsolaria sortzeko trantze horretan ari denean. Zer ona. Eta hori nik uste mendeetako ibilbide baten ondorio dela, entrenamendu baten ondorio, jendeak badaki isiltasuna gorde behar duela, kontzentrazioa lagundu... hori ez da elkarteak azken 40 urteetan lortu duen zerbait, hori gure DNAn datorrela uste dut, bestela ez da posible».

Bertsolaria eta bertso eragile nekaezina da Iñaki Murua (Gaztelak, 1956). Berak jantziko dio txapela txapeldunari.

Abenduaren 18an txapeldunari txapela jantztea izango da zure lana.

Ez da lana. Niretzat aukera polita da, nahiz eta hasieran us-tekabean harrapatu ninduen. Gustuko lanean aritu naiz eta gustuko lan horretan ez diozu zure buruari meritu hori ikusten. Niretzat bertsoa zoriontsu izateko bitarteko bat izan da, bai bertsolaritza eta bai elkarte bera, nahiz eta erreminaldiak ere pasatu tartean. Base-rritar batek aukeratzen badu baserritar izatea, nahiz eta la-

IÑAKI MURUA JAUREGI

BERTSOLARIA

Bertsoaren aurrea eta atzea primeran ezagutzen ditu Iñaki Muruak. Bertsolari bezala ibilbide luzea osatu du eta parean, oholtzatik kanpo ere lana egin du majo bertsoaren alde. Bertsozale Elkarteko lehendakaria izan da 2005 eta 2018 urte bitartean. Jende asko poztu da txapeldunari txapela berak jantziko diolako, edonori magala eskaintzen dion patxada baita berea.

Amagoia Mujika Telleria

na izan enpresa batean, berak bere bidea aukeratzen eta gus-tura aritzen bada horretan, inork ez dio omenaldi bat egi-ten, ez? Ez dakit merezi dugun edo ez, baina niretzat lana baino gehiago ohorea da txapela jantztea. Jende askok adie-razi dit pozik daudela txapela nik jantziko dudalako eta poz hori sentitzen duten guztien orde-zko sentituko naiz han oholtzan. Lana baino gehiago plazer handi bat izango da.

Badakizu zer den final nagusi batean kantatzea. 1986an eta

1989an finalista izan zinen. Nola gordetzen dituzu go-goan plaza horiek?

Egun ona duzunean edo aldar-te onean zaudenean, ederra da. Baina hirugarren puntua tolestatu ezinik eta ihes egiten hasten zaizunean, arrazoiak ezin aurkitu eta larri zabil-tzanean, han harmailetan goian daudenak gainera erortzen zaizkizu. Jendeak azpian har-rapatzen zaitu.

89an horrelako oroitzapen bat daukat. Alaba jaioberria zen, ospitalean zegoen arazo batzuk izan zituelako eta egoe-

rak irentsi egin ninduen. Bu-rua ez neukan finalerako eta bertsolariak oso kontzentra-tuta egon behar du.

Dena den, ni ez naiz txapel-ke-tetan oso ondo aritu, motor txikikoa edo arnasa txikikoa izan naiz eta horrelako saioe-tan arnasa falta izan dut gehienez. Beste batzuk ikusi ditut lehiakor, edo kanpotik behintzat beste planta bat, beste egoteko modu bat; pa-zientzia, patxada, segurtasu-na... Gogoan daukat txapelke-tako saio batean, Tolosan, Andoni Egañarekin ofizio bat egin behar nuela. Aulkitik al-txatu eta esan nion, ‘beno, orain ikusiko diagu’. Eta Ando-nik esan zidan, ‘orain ikusiko diagu ez, orain ikusiko ditek’. Haren jarrera beste bat zen. Hor dago diferentzia, hark lau txapel eta nik aurtengo hau beste bati jantzeko ohorea.

Alegia, bertsolari denek ez dute balio txapelketarako.

Irabazteko behintzat beste ja-rrera bat behar da, nik ez neu-kana. Batek baino gehiagok esan izan dit, ‘hik bertsolari hasiberri batekin kantatzen dukenean, haren mailan jar-tzen haiz. Eta eskarmentu handiagoko batzuekin ari hai-zenean, haien mailan’. Enpati-koegia banintz bezala, eta ez txapelaren bila doana.

89ko finalean erietxean ze-goan alaba jaioberria zenue-n buruan. Aitatasunaz ez da as-ko hitz egin bertsogintzan.

Final hartan, gaia jartzen zida-ten eta niri ez zitzaidan buru-tik joaten alabaren irudia. Egia da aitatasunaz ez genuela asko hitz egiten eta segur aski gizo-naren rolak horrela behar zuen; gizonak ez du negar

egin behar, gizonak gizon izan behar du... baina zer da gizon izatea, ba? Sentimendurik ga-beko makina bat? Ni beti go-goratuko naiz 89ko finalaz, irudi horiek orain ere oso pre-sente dauzkat.

Baina ez da hori bakarrik. Gero saiora joan behar eta se-me-alabak, txikiak, negarrez ez joateko esanez. Behin edo behin gertatu zait saiotik buel-tan iluntzean etxera etorri, atea ireki etxera sartzeko eta ate atzean traban semea, pija-marekin seko lo. Goizeko ordu bietan han, aita noiz etorriko zain. Gogorra da aita izanda bertsolariaren ibilera hori era-matea.

Horri buruz ez da asko hitz egin publikoki.

Orain ari naiz zurekin. Gure garaian niri bakarrik ez zi-tzaizkidan gertatuko gauzak hauek, baina egia da gure ar-tean ez ditugula partekatu. Gure umeak tribuan hazitako umeak dira. Mendi irteeretan kuadrillakoen bizkarrean ageri dira argazki guztietan, aita fal-ta zen, bertotan zegoelako. Une hartako pena ez zait ahaz-ten. Semeak behin puntua ja-rri zidan Zegamako saio ba-tean, «aita bertsoetatik desapuntatu zaitez». Baina orain atzerako horrek ez dau-ka zentzurik eta iruditzen zait tribuan haztea ere interesga-rria dela, alde horretatik gure umeek ez daukate gabezia na-barmenik.

Gatozen aurtengora, Iruñera. Zein zortzikote ederra fina-lean.

Bai, pozik nago. Inbidia pun-tua ere sentitu dut saioetan zer-nolako lanak egin dituz-ten, zer sorginkeria erakutsi



Jagoba MANTEROLA | FOKU

Nafarroa Arenako oholtzan, urduri jarriko zara?

Bai. Ni motor txikikoa naiz eta plaza handia da hori. Gero ez dut uste bertsozik kantatuko dudarik. Hain egun borobila ez nuke trakestu naiz. Urduritasuna, parkinsonak ematen duen ikara, emozio guztiak puntan... ez dakit egoera horretan bertsoa kantatzeko gai izango naizen. Ez diot uko egiten, baina ez nuke eguna desitxuratu nahi.

Zer moduz zaude osasun aldetik?

Ondo nago, pastillen mende. Horrela, mahaiairen babesean egoteko, ondo, baina mikrofono baten aurrean, zutik, horrenbeste jenderen aurrean, ez dut niri burua irudikatzen. Esan balidate derrigor kantatu egin behar dudala, segur aski kantatu egingo nuke. Baina esan didate ez daukadala kantatzeko obligaziorik eta ez noa nire burua arriskuan jartzera eta egun horretako aho zaporea aldatzera, deskuiduan irristadaren bat egingo banu edo. Unean erabakiko dut. Gustatuko litzaidake kantatzea, bertsolari bat hil arte kantuan aritzen da. Ametsetan ere pentsatu dut bertso hori ez dakit zenbat aldiz... ikusiko dut.

duten, zein maila, hizkuntzarekin jolasteko nolako gaitasuna... harrituta nago. Gaiekin ere pozik nago, oso ausartak iruditu zaizkit, terreno berriak esploratzen ari denaren arriskuak hartu ditu gai-jartzaile taldeak.

Terreno berriak esploratzen baita bertsolariak ere.

Bai, lan handia egin da, ertz handiak eta asko ikusi ditugu. Belaunaldi aldaketa nabar-

mentu egiten da, Txirritaren garaian latina edo erdara asko sartzen zelako kexa zen. Oraingoeke beste hizkuntza eta tresna batzuk erabiltzen dituzte. Gaurkotasunari heltzeko bakoitzak bere erremintak erabiltzen ditu. Azken finean bertsolaritza aspaldiko tradizioa da, baina aldiro berritzen doana, tradizio moderno bat dela esango genuke. Gaurkotasunik ez daukanarentzat ulertzea kostatu egiten da eta hor

dago aldea. Nik dena ulertuko banu, zerbait gaizki egiten ari gara. Eta nik ere nire aldetik jarri behar dut zerbait gaurkotasun hori ulertzeko.

Zortziak zure umeak balira bezala begiratzen dituzu. Oso gertukoak dira zuretzat.

Ez dira nire umeak, baina bai, oso gertukoak. Hazten ikusi ditut. Konplikatu diet bizitza pixka bat, iruditzen zait jende gazteari bizitza konplikatu

egin behar zaiola, ez txarrerako, baizik eta aukera eskainiz. Zu lanean ari zarela hor ondoan izan. Hala ere, nik ikasi gehiago egin dut haiengandik, zorionekoa izan naiz zentzu horretan, bai eskolan eta bai bertsogintzan gazteekin jarduteak eman didan irakaspena sekulakoa da. Zentzu horretan oso pozik nago, bertsolaritzan lortzen ari dena izugarria da, alderdi guztietan aurrerapen handia ematen ari da.

